



Hezkuntza Saila, erabakiak hartu!

STEILAS sindikatutik honako lau puntuen inguruan Hezkuntza Sailari berehala erabakiak har ditzala eskatzen diogu, langileen lan baldintzak eta ikasleen eskubideak bermatzeko ezinbestekoak baitira:

- **Ordezkapenak:** Egoera honetan, bereziki, haur eta gazte guztien hezkuntza eskubidea bermatzeko ezinbestekoa da ordezkapen guztiak betetzea.
- **Negoiazio Kolektiboa:** Langileon lan baldintzak negoziatzeko esparruak berehala berreskuratzea.
- **EPE:** 2020/2021 ikasturtera atzeratzea. Ez dago beste aukerarik hautagai guztien aukera berdintasuna eta osasuna bermatzeko.
- **Hezkuntza eskubidea** bermatzen ari ez zaien ikasleak: Hezkuntza Sailak, Udalekin, ikastetxeekin eta beharrezkoa den erakundeekin elkarlanean, gure ikasle guztien aukera berdintasuna bermatzeko berehalako neurriak hartzea.

Sektore guztietan (Haurreskolak, Heziketa Berezia eta Irakasleak) proposamen eta galdera zehatz gehiago helarazi dizkiogu Hezkuntza Sailari. Horiek ere aste honetan zehar argitaratuko ditugu. Bitartean hezkuntza sistema osatzen dugun langile guztien alde eta ikasle guztien aukera berdintasuna bermatzeko lanean jarraituko dugu.



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus